



# KULTURA PAYS BASQUE

[www.kultura-paysbasque.fr](http://www.kultura-paysbasque.fr)

## OBJEKTU ANTZERKIA ETA TXOTXONGILO ANTZERKIA



Urtero, gure sasoi kultural guzietan, Objektu Antzerkia eta Txotxongilo Antzerkia atzemanen duzu han eta hemen, edo gure azaroko programan.

**Baina zer ote da? Gauza bera ote da?**

## TXOTXONGILO ANTZERKIA

Txotxongilo Antzerkia arte zaharra da, tradizionala. Frantzian Guignol figura herrikoia bada, adibidez. Aritz garatu da 1960ko hamarkadaz geroztik, aipatzen diren gaiak eta erabiltzen diren teknikak transformatu baitira.

— Luzaz Txotxongilo Antzerkiaren ezaugarria hau izan da: antzerkilaria bere ikusgarriaren gibelean gordea zen: agertokiaren gibelean kukutua zen edo itzalean gorderik egoten zen. Bere burua agertzen bazuen, gorputza geldirik zuen, aurpegia espresiorik gabe... Orain, gehienetan txotxongilo jokalaria pertsonaia bat da osoki, txotxongiloen espazio dramatiko berean ari da, eta rol bat baino gehiago ukan ditzake.

— Arte desberdinen arteko muga ez da gehiago hain markatua. Txotxongilo antzerkiak bideoa sar dezake, arte plastikoak...

— Ikusleak rol aktiboa ukan behar du, bere irudimenari gehiago dei egiten zaio pertsona bizidun bat ari den aktore antzerkian baino.

— Txotxongiloak eta haien manipulatzeko teknikak aniztunak dira.

## OBJEKTU ANTZERKIA

Objektu antzerkia 1970. hamarkada bukaeran sortu zen hiru konpainiatan: le Théâtre de Cuisine, le Théâtre Manarf eta le Vélo théâtre. 1930ean mugimendu surrealista jadanik jostatzen zen objektuak beren ohiko erabilpenetik desbideratzen.

— Mugimendu artistiko horrek kontsumo jendartearen kontra protesta egin nahi zuen, honek objektuak metaka ekoitzi eta saldu nahi baitzituen, eta ahal bezain fite zikinontzian bukatzen baitzuten. Beraz, hautu politikoa bazen mugimendu horren iturburuan.

— Arte “pobrea» da: ez da gauza handiren beharrik existitu dadin! Edozein objektu erabil daiteke, bere usaiako erabilpenetik “desbideratuz”. Antzerkilaria objektu bat edo gehiago manipulatzeko ditu, eta istorio poetiko baten sujet bilakatzen dira.

— Objektuak emozioei edo oroitzapenei lotuak izan daitezke, zerbait gogora ekartzen dute eta hortaz balia daiteke sorkuntzaren mementoan inspiratzeko.

— Objektua bera ez da landua edo transformatua, adibidez bi begi eta aho batekin. Den bezala egoten da, beraz, antzerkilariak istorio batean barna eramán gaitzake, baina aldi berean ikusleak ez dezake ahanz baduela, adibidez, kafegailu bat begien aitzinean, edo goxoki bat, hots, egiazko objektuak. Ikuslearen irudipenari dei egiten zaio, pertsonaiak antzerkilariak diren antzerkietan baino aise gehiago, eta txotxongilo antzerkian baino gehiago ere.

## Ateraldi kulturala aitzin edo ondotik ikasgelan esperimenta daitezkeen tailerrak.

- Zer kontatzen ahal ote digu objektu batek, haren entzuten badakigularik?
- Nola egin posible ikaslearen eta objektuaren arteko harremana?
- Tailer praktikoan bidez, ikasleari ulertarazi objektua emozio eta poesia iturri dela.

Interesgarria litzateke hastapen batean irakasleak ekarri usaiako objektuen erabiltzea, ikasleak uler dezaten objektuak dimentsio onirikoa duela, antzerki mundukoa. Ondotik, ikasleak prest izanen dira objektu «pertsonal» baten atzemateko, «etxe barnetik» heldu den objektu bat.

### I. TAILERRA

## Objektu bat bestela ikusteko

Ahantzi dakiguna, ahantzi zertarako den, eta utz nork bere emozioek gidatzera:

- Hunkitu “begiak hetsirik”, sentitu formak, dimentsioak, testurak, ekaiak, sendotasunak...
- Sentitu usain goxoak, ala ez...
- Entzun ozentasunak, firfirak, kliski-klaskak...
- So egin koloreei, erritmoei, ñabardurei, keinuei, marrazkiei...

Objektu bakoitza ukipen, usaimen, soinu, ikusmen “paleta” bilakatzen da.

Aginduak: Hitzetan ezar zer sentitu den objektuaren ekaia, testura, forma, usaina, pisua, kolorea, materialak eta neurria ezagutzean. Objektuaren “nortasun agiri» sentsoriala finkatu.

## 2. TAILERRA

### Taularatu

- Elementu plastikoak xerkatu lehen obrak osatzeko, agerian ezartzeko edo beste erran-nahi bat emateko.
- Ekoizpenaren ingurumena bera kontuan hartu:
- aurkezpenaren espazioa hauta: ontzi bat, oinarri bat, kolore desberdinetako euskarriak. Pareta batean, lurrean, soailuan instalatzea.
- ekarri nahi den ondorioa hauta, argi jokoak erabiliz edo osagarriak, hala nola ehunak, koadroak...

**Antzerti forma eman zaion objektuak irudipenari dei egiten dio, oroimenari, afektibitateari... Hots, «norberaren museoari», eta horren bidez haurrak bere sentsibilitatea erakuts dezake, bere burua ager dezake...**

## 3. TAILERRA

### Transformatu

Objektu horiek guzkiek analogiak egitera ekartzen dute, forma oroitarazle franko proposatzen, haien itzalak eta aztarnak joko grafikoetarako aitzakiak dira...

Objektu baten transformatzeko:

- Estereotipoetatik libratu
- Aurkitzearen eta esperimentatzearen plazera sentitu
- Tresnen bidez ala tresnarik gabe esperimenta daitezkeen ekintzak zerrendatu
- Norberaren adierazpena elikatu
- Irekitze kulturala erraztu erreferentzia artistikoak emanez, ikasgelan egin esperientziak “errepikatuz”: objektuaren gaiaren inguruan, obra desberdin franko erakuts (garai desberdinak, kultura desberdinak... arte modernoa, garaikidea...).